

BEKAK ETA LAGUNTZAK ESKATZEA

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROETAN PARTE HARTZEN DUTEN LANGABEENDAKO

DATU PERTSONALAK

Izen-deiturak		IFZ/NA	
Helbidea:			
Posta kodea	Herria		Telefonoa
Banku kontua: IBAN _____	Entitatea _____	Bulegoa _____	CAko 3.a ____
Kontu zenbakia _____		_____	

IKASTURTEA

Ikastaro zk.a	Izena	Prestakuntza zentroa	Hasiera data

ESKATUTAKO LAGUNTZA

Laguntza mota (markatu egokia/k)	Aurkeztutako dokumentazioa (markatu egokia/k)
<input type="checkbox"/> Hiri garraio publikoa.	
<input type="checkbox"/> Hiriarteko garraio publikoa.	<input type="checkbox"/> Garraio txartela.
<input type="checkbox"/> Garraioa: norberaren ibilgailua.	
<input type="checkbox"/> Mantenua.	
<input type="checkbox"/> Ostatua eta mantenua.	<input type="checkbox"/> Errentamendu kontratua. <input type="checkbox"/> Ostatatze faktura. <input type="checkbox"/> Besteren bat.
<input type="checkbox"/> Kontziliazioa hauek zaintzeagatik: <input type="checkbox"/> 12 urtetik beheitiko seme-alabak. <input type="checkbox"/> Mendekotasuna duen senidea. Mendekotasuna duen senidearen izen-deiturak eta NA:	<input type="checkbox"/> Familia Liburuaren fotokopia. <input type="checkbox"/> Bizikidetzta ziurtagiria. <input type="checkbox"/> Familia-unitateko kide guztien (azken bi soldata, mantenu-pentsio, bermatutako errentaren, etab.) sarrerak. <input type="checkbox"/> Familia unitateko beste kide batzuek lan egiten badute, dagozkien azken bi nominak.. <input type="checkbox"/> Familia unitatean bestelako prestaziorik edo diru-sarrerarik jasotzen ez delako adierazpena.
<input type="checkbox"/> Martxoaren 7ko TAS/718/2008 Aginduaren 25. artikuluan, honako hauek direla-eta, aurreikusitako beka: <input type="checkbox"/> Desgaitasuna. <input type="checkbox"/> Ezintasun iraunkor osoa.	

GENERO-INDARKERIA-EMAKUME BIKTIMENTZAKO BEKA

Beka honetarako eskubidea izango balu, harremanetan jar bitez Servicio Navarro de Empleo-Nafar Lansarearekin sgestionf@navarra.es posta elektronikoan zehar.

Behean sinatzen duenak aitortzen du adierazitako datuak egiazkoak direla eta oraingo deialdian ez duela behin baino gehiagotan parte hartzen ekintza berean.

Data eta eskatzailearen sinadura,

OSO GARRANTZITSUA: bete inprimaki honetako eranskinetako B atala. Hala egin ezean, beka eskaera ez da bideratuko

ERANSKINA. DATUEN BABESA

A) DATUEN BABESAREN GAINEKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Arduraduna	Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzua (NL-NEZa)
Helburua	Enplegurako prestakuntza ikastaroetan izena emateko eskaera kudeatzea eta izapidetzea, bai eta ikastaroen eta ikastaroetan esku hartzen duten ikasleen jarraipena egitea ere.
Legitimazioa	Onespena
Hartzaileak	Erakunde publikoak, kontrolekoak eta ordaintzen dutenak
Eskubideak	Sartzea, zuzentzea, ezereztea edo aurka egitea, eta datuak tratatzeari mugak jartzea. Datu enramagarritasuna

B) BAIMENA, DATU PERTSONALAK TRATATZEKO ETA FITXATEGI PUBLIKOETAKO DATUAK KONTSULTATZEKO

Prestakuntza ekintzaren eskatzaileak aitortzen du informazioa jaso duela, eta, horregatik, berariaz ematen du baimena bildu eta tratatzeko eskabide honetan eskatutako datu pertsonalak eta, halaber, harreman administratiboan zehar sortzen diren datuak, bere eskabidea kudeatzeko eta ondoren tratamendu estatistikoa egiteko denean.

Era berean:

- BAIMENA EMATEN DIO NL-NEZari lor dezan –edozein erakunde edo administrazio publikotatik, zuzenean edo bide telematikoen bidez, datuak egiaztatzeke zerbitzua baliatuta– deialdi honen aintzatespena, jarraipena eta kontrola egiteko behar den informazio pertsonal guztia; zehazki: lan egoera, egindako ikasketak, desgaitasuna, errenta bermatua jasotzea, errentaren aitortpena, NAN/IFZari buruzko kontsulta, bai eta aipatu helbururako behar den beste edozein datu pertsonal ere.
- EZ DIO BAIMENIK EMATEN NL-NEZari aurretik aipatutako informazioa lortzeko, **eta konpromisoa hartzen du informazio hori aurkezteko, eskaera izapidetze aldera; gainera, badaki aurkezten ez badu bere eskabidea ez dela onartuko.**

C) INFORMAZIO OSAGARRIA

Datu pertsonalen tratamendua honako arau hauen arabera egiten da: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa.

Erregelamendu horren 13. artikuluan xedatutakoa betetzeko, hauex jakinarazten da:

ZEIN DA ZURE DATUEN TRATAMENDUAREN ARDURADUNA?

Arduraduna da Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzua, helbide hau duena: Tomás Caballero parkea 1, "Printzearen Gotorlekua II" eraikina, 31005, Iruña
Honako hauek dira Nafarroako Gobernuak Datuak Babesteko Ordezkariekin harremanetan jartzeko datuak: Karlos III.aren etorbidea 2, 31002 Iruña.

ZEIN HELBURUREKIN?

Helburu nagusia da honako deialdi hau kudeatzea. Gainera, aurreikusi da helburu estatistikoetarako erabiltzea.

ZENBAT DENBORAN GORDETZEN DIRA?

Emandako datu pertsonalak gordeko dira tratamenduaren helburuak betetzeko behar den denbora guztian.

ZEIN DA TRATAMENDUAREN OINARRI JURIDIKOA?

Tratamenduaren legitimazioa interesdunaren baimenean oinarritzen da. Dena dela, datu horiek eman beharra dator Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen eskakizunetatik.

Horren ondorioz, interesdunak ez badu baimena ematen bere datuak tratatzeko, ezin izanen du dirulaguntza jaso, eta ez badu baimentzen behar diren datuak aipatutako beste lekuetatik hartzea, berak aurkeztuko du behar den dokumentazioa, bere eskabidea tramitatu ahal izateko.

ZEIN DIRA DATUEN HARTZAILEAK?

Datuak lagatzen ahalko zaizkie Nafarroako Gobernuaren beste organo batzuei, baita beste administrazio publiko batzuei edo kontroleko agintari, epaimahai eta erakundeek ere beren egitekoak bete ditzaten. Finantza entitateei ere lagatzen ahalko zaizkie, ordaintzak kudeatzeko.

NOLA LORTZEN DIRA ZURE DATU PERTSONALAK?

Batez ere eskubidean emanen dituzu. Beste batzuk harreman administratiboan zehar sortzen dira, eta beste zenbait, berriz, administrazio eta erakunde publiko nahiz pribatuak jaso beharrekoak dira, kudeaketa egokia egiten bada.

ZER DATU TRATATZEN DIRA?

Funtsean, identifikazio datuak, harremanetan jartzekoak, sozioekonomiko eta finantzarioak eta, behar denean, lan jardunari buruzkoak.

ZER ESKUBIDE DITUZU ZURE DATUAK EMATEN DITUZUNEAN?

Zure datuei dagokienez honako eskubide hauek erabili ditzakezu:

- Datuetan sartzeko eskubidea: jakitea zer datu ari diren tratatzen.
- Zuzentzeko eskubidea: okerrekoak direnean.
- Kontra egiteko eskubidea: zure datuen tratamendua eten dadin, salbu eta bidezko arrazoi larriak badaude edo erreklamazioak aurkezteko edo defendatzeko.
- Ezabatzeko eskubidea: zer helbururekin jaso ziren, xede horretarako beharrezkoak ez diren datuak ezerezteko.
- Mugatzeko eskubidea: tratamendua mugatzeko; kasu horretan, bakarrik erabiliko dira erreklamazioak aurkezteko edo defendatzeko.
- Datuak eramangarriak izateko eskubidea: guk zuri zure datuak ematekoa, gero beste arduradun bati emateko.
- Baimena baliogabetzeko eskubidea: esan nahi du edonoiz egin daitekeela atzera baimenean, tratamendurako baimena eman ondoren, horrek eraginik ez duela emandako baimenean oinarrituriko tratamenduaren zilegitasunean, eta hortik etor daitezkeen ondorioekin.

Eskubide horiek erabiltzeko, idazki bat aurkeztuko duzu, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuari zuzendua.

Zure eskubideak erabiltzeko idazkien ereduak Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren webgunean aurkituko dituzu (www.agpd.es).

Halaber jakinarazten zaizu erreklamazioa aurkez diezaiokezula bai kontrol agintaritzari, datuen babesaren alorrean eskumena duenari, bai Nafarroako Gobernuak Datuak Babesteko ordezkaritari.